

IRABAZI ITURRIAK

Ordainketa bakarreko produktua da, hau da, diru kopuru bat ordaintzen duzun momentuan produktuari erabilera askea eman ahalko diozu berriro gehiago ordaindu beharrean. Honekin produktuaren eskuragarritazuna erreztuko da, pertsonak erosten duten momentutik jakingo dute honen prezioa eta ez dira hilabetero edo erabiltzen duten momentu guztietan arduratu beharko ea honen kostua zenbatekoa izango den kalkulatu nahian.



Produktuaren saltze mota aktiboen salmenta izango da, behin produktua ordaintzen duzunean zuretzat izango da, honi esker erosi duzun produktuaren gainean askatasun guztia edukiko dute erosleek. Behin produktua erosita erosleen esku egongo da ea zer egin nahi duten berarekin, askatasun guztia edukiko dute produktua, bersaldu, apurtu edo erabilera normal bat emateko produktuaren marka publikoki erabiltzen ez duten bitartean.

Zintzil butil produktuak prezio finko bat edukiko du, hau da, prezioa ez da merkatuaren goraberaren arabera aldatzen joango baizik eta aldagai estatiko batzuekiko menpe egongo da, aldagai hauek osatzen dituen materialak lortzea kostatuko zuen diru eta esfortzu kantitatea barneratuko zuen. Honi esker bezeroak denbora guztian produktuaren prezioarekiko segurtasuna edukiko zuten, materialen kostua modu handi batean aldatzea zerbait zaila baita eta ondorioz zintzil butil-en prezioa ere zerbait oso finkoa izango da denbora pasa ala.



Honen guztiaren gaiñ beste diru iturri bat ere egongo da, kiroldegiarekin afiliatu ondoren zintzil butil produktua bertako instalazioetan erabilgarri egongo da beraz erabilgarritasun honegatik diru kopuru bat ere jasoko da. Ordainketa bakarrekoa izango da baina kiroldegiaren markan zehar dauden polikiroldegi denak aztertuz eta beraien instalazioetan dauden erabilera aukerak ikusita baita izango da posiblea bertatik zintzil butil ideia finantziatu eta etekiña ateratzeko dirua ateratzea.

